

Jose Mendiague

TXOMIN PEILLEN

(Paris, 1932)

Sorbonneko Unibertsitatean biologia ikasketak egin ondoren 25 urtez izan zen irakasle Parisen, eta bera han sortu zen arren, gurasoak zuberotarrak zituenez gero, 1982an Pabeko Unibertsitateara aldatu zen, Santa Grazi eta Baiona hartu zituelarik bizileku.

Jon Miranderen lagun mina, Parisen elkar ezagutu eta *Igela* literatur aldizkaria sortu zuten 1962an. Beste hainbat aldizkari-tan ere eman ditu ezagutzera bere idazlanak: *Gernika*, *Egan*, *Euzko Gogoa*, *Jakin...* Liburu askoren idazlea, itzultzaile lane-tan ere oso emankorra da Txomin Peillen, besteak beste haur eta gazte literaturan *Errotaria errege*, *Buffalo Billen abentura*, *Mirko printzea*, *Aldjezaria askatuta*, etabar itzuliak dituelarik. Antologiarako Jose Mendiagueren poema batzuk itzuli ditu gaztelaniara.

Jose Mendiague

PIARRES XARRITON

Montevideo-ko berriak

Airea: "Nor nabik zernahi erranikan ere..."

I

Euskal Herrietarik izan dut galdia
Montevideon nola bizi den jendia.
Erran nahi dautzuet bihotzez egia:
Ene herritar maiteak, eizue guradia!
Hemengo bizia,
Horkoa iduria,
Ez da hainitz hobia;
Hor ontsa denik, hunat ez bedi abia!

II

Guzietan badira hor bezala penak;
Nonnahi sofritzen du, pobria denak;
Hemen badira hainitz, hortik hunat jinak,
Ilusionez beterik, eitera fortunak;
Ez dira lehenak,
Tronpatu 'tuenak,
Urruneko famak:
Ezin biziz, orotan badira lanak.

III

Hunat ondoan dabilta karrketan kurri,
Lanik badakitenetz, galdez elgarri.
Ez dira menturatzen jende aberatsari:
Heiek ez dute egiten kasurik nehorri;
Esker tzarra orori,
Merkenikan hori,

Bosquejos vasco-uruguayos

TXOMIN PEILLEN

Las noticias de Montevideo

Desde el País Vasco me han preguntado
para saber como vive la gente en Montevideo
del fondo del corazón la verdad les voy a contar
¡mis queridos paisanos tengan cuidado!
 la vida de acá
 como la vuestra de allá
 no es mucho mejor.
El que está bien allá, que no venga para acá.

En todas partes como en el País Vasco, penas hay
el que es pobre, padece en todos los lugares
aquí hay muchos venidos de allá
de ilusiones llenos, para hacer fortuna,
 no son los primeros,
 que la fama lejana
 dejó engañados
Es universal, del mal vivir, la pena.

Llegando aquí van por las calles preguntándose
unos a otros a ver si hay trabajo
no osan dirigirse al rico
que de nadie tiene cuidado;
 ingritud a todo
 eso es el más barato

Bihotz-altxagarri,
Sofritu behar dute pobrek zernahi.

IV

Bizi behar duenak hemen jernalian,
Ez da izanen beti abundantzian:
Suertez sartzen baditu hiru egun lanian,
Alfer, bertze hiruak, eman ez etxian,
Salda txarra eltzian
Duke igandian,
Mahaian jartzian;
Hobeki bizi dira Euskal Herrian.

V

Orain nahi duenak egia sinetsi,
Hemengo berriak kondatzen 'tut klarki;
Behar duenak hemen eskulanaz bizi,
Pasatu beharko du zenbait neke-izerdi;
Hala ere beti
Ikusia gaizki;
Pobre izaitia aski;
Jainkoa halakoaz urrikal bedi!

VI

Denbora hobiagoetan zenbait hunat jinik,
Orai hemen gabiltza, sakela arinik.
Ez ginuen pentsatzen, orduan segurik,
Ondotik jinen zela holako urterik.
Hortaz fidaturik,
Gaude tronpaturik,
Ez dugu lanjerik
Hemendik jalitzeko aberasturik!

VII

Hok dira Amerikano zaharren berriak:
Pasatu izan'tugu urte hobiak;
Berantegi argitu ditugu begiak,
Ez izanez oraiko esperientziak.
Orain zahartuiak,
Leneko nagiak,
Indarrak galduiak,
Planta txarrian gaude eiteko Indiak.

y único consuelo.
Los pobres tienen que sufrirlo todo.

El que acá de jornalero vivirá
en la abundancia siempre no estará
con suerte, tres días trabajará
holgando, otros tres en casa
 mal caldo en el puchero
 tendrá los domingos
 al sentarse a la mesa
Mejor viven en el País Vasco.

Ahora, el que quiere creer la verdad
las noticias de aquí claramente les doy
el que debe vivir del trabajo de sus manos
pasará muchas penas y sudor,
 y, siempre, entre tanto
 mal considerado;
 basta con ser desgraciado
Que Dios sea con él misericordioso !

Los que en tiempos mejores venimos
ahora con bolsillos ligeros, andamos
entonces, por seguro no pensabamos
que vendrían tales años.
 Confiados en aquellos
 quedamos engañados
 ningun riesgo tendremos
 de salir de aquí enriquecidos.
Aquellas son las noticias de un viejo americano
años mejores hemos pasado
demasiado tarde se nos aclararon los ojos;
experiencia actual no teniendo
 ahora envejecidos,
 sin ganas para el trabajo,
 perdido el vigor,
en mal postura para ganar el Potosí estamos.

VIII

Arribatu ginenian gu Amerikara,
 Zerbaiten egiteko bazen denbora:
 Zahartuko ginenetz, guti oroitu gira,
 Mundutik partitzeko jin zaiku tenora;
 Notaria etxera
 Jiten bada aldera
 Testamentu eitera,
 Garbi geldituko da haren papera.

IX

Huna zer bizi dugun Amerika aldian,
 Nahasiak dabilta oro, aspaldian,
 Batek bertziarentzat beti inbidian;
 Elgar ezin sofrituz daude errabian;
 Bataila gorrian
 Elgarren artian,
 Ez dauzke bakian,
 Denak pagatzen ditu pobriak munduian!

X

Hor dudatzen duenak hauien sinestia,
 Aski du ikustera berak jitia.
 Hemen ere eiten dute zenbaitek suertia,
 Ez da guziendako destino tristia.
 Ez da lan handia
 Berak probatzia,
 Jin eta ikustia.
 Ez gure gatik utzi fortuna eitia!

Euskaldun baten kontseiluak Montevideo-ko presidentari

Airea: «Gernikako arbola...»

I

Mila-zortzi-lau-hogoi-hamalaugarrena
Montevideo-ko jendia oroituko dena:
 President bat hautatzen izan dute lana,
 Gaizki ateraturik aintzinetik plana,
 Denentzat ezin izan, baten behar dena.

Cuando a América llegamos
para hacer algo, teníamos tiempo.
Que envejeceríamos no nos acordábamos
nos llega la hora de quitar el mundo
a casa el notario
si viene, está el momento,
de hacer el testamento
su papel quedará limpio.

Así es la vida por la parte de América
desde hace tiempo todo anda perturbado
el uno celoso del otro
con la rabia de no tolerarse
en batallas puras
unos contra otros
no se quedan en paz.
El pobre todo lo paga en el mundo.

Allá en el PaísVasco el que duda
basta que venga a ver
Aquí también unos tienen suerte
para todos el destino no es triste
no es gran quehacer
que ellos mismos intenten:
venir y ver.
No dejéis de hacer fortuna, por nuestra culpa.

Consejo de un vasco al presidente de Montevideo

Al señor presidente Juan IdiarteBorda.

Del año mil ochocientos noventa y cuatro
la gente de Montevideo se acordará:
Habiendo sacado mal sus anteproyectos,
le costó trabajo elegir un presidente,
no puede ser para todos el sitio destinado a uno.

II

Hogoi-ta-bi egunez izan da partida;
 Bakotxa bere alde okupatu dira;
 Azkenian bat igan da beheretik gora;
 Presidentzialeko kaderean hor da
 Ohore handietan *Idiarte Borda*.

III

Orai jarria zira guzien gainian,
 Gauzen ontsa ikusteko leku ederrian.
 Zenbait gaizki ibilirik zu ziren lekuian,
 Lautarikan hiru gaude miserian,
 Zure beharra dugu artzeko lanian.

IV

Zure esperantzan gaude guziak begira,
 Bertzek baino hobeki dezakezun gida.
 Lehengo urratsetan ibiltzen bagira,
 Republika huntarik joan beharko gira,
 Bertzetan xerkatzera laneko segida.

V

Hori guziendako malur heldu baita,
 Ontsa gida gaitzazu, zu zira gure aita,
 Makurren xuxentzaliak egiten du falta:
 Ez zazula nehor, gaizki eginik barka,
 Injustuki ez dezagun nehor gaizki trata.

VI

Zuretzat on ez dena, atxik azu urrundik,
 Gorri ala zuri den ein gabe kasurik,
 Izan nahi baduzu errespetaturik.
 Justizia egiteko ez izan beldurrik,
 Bertzela ez duzu izanen herrian bakerik.

VII

Legiak einak dira munduan guzien;
 Justiziako «vara» atxik-azu zuzen,
 Pobrendako bezala berdin aberatsen,
 Denek jakin dezagun gaizki eitia zer den,
 Nehork erraitekorik izan ez dezaten!

Durante veintidos días hubo competición
cada uno por su lado afanados;
al final un solo asiento,
en gran honor está Idiarte Borda
sentado en la cátedra presidencial.

Ahora está sentado por encima de todos
en el mejor lugar para ver bien las cosas.
A causa de unos cuantos que pasaron
por el lugar donde se encuentra,
de cuatro tres estamos viviendo en la miseria,
le necesitamos para ponernos a trabajar.

Estamos mirándole con esperanza
a fin que nos dirija mejor que los de antes.
Si anduviéramos en los pasos del pasado
tendríamos que salir de esta república
y buscar otras para seguir trabajando.

A causa de todo esto vinieron las desdichas,
Vd. nos guiará bien, es nuestro padre
necesitamos un hombre de justicia:
no perdone a nadie el mal que haya hecho
pero tampoco tratemos injustamente a nadie.

Deje lejos de su persona al que no sea bueno,
sin hacer caso de ser Blanco o Colorado,
si quiere que le tengan respeto:
no tema hacer justicia,
sino no tendremos en el país la paz.

Las leyes están hechas en el mundo para todos
mantenga la vara de la justicia recta,
tanto para los ricos como para los pobres,
para que todos sepamos lo que es hacer el mal.
¡Que nadie tenga nada que decir!

VIII

Zuhaurek ekar-zkitzu aldeko lagunak,
 Beren herria maite duketen gizonak!
 Ontsa atera zaitzu aintzinetik planak,
 Bertzek baino hobeki egiteko lanak,
 Zuretzat izan ditene obrak eta famak!

IX

Karga handien azpian jarria zirade,
 Izan duzun kargua gora izanik ere;
 Lurrian dena ezin altxa laguntzarik gabe,
 Ein ahala egizu herriaren alde,
 Zure obra ederren, denak beha gaude.

X

Zure baitan daukagu gure esperantza,
 Laguntzalerik gabe ez gitazke altxa,
 Beharretan girela badakizu ontsa.
 Jendeak hartuz geroz zutan konfiantza,
 Zuk ere ez dukezu laguntzalia falta.

XI

Ez duzu aise eginen guzien gogora,
 Jelosian daudener ez zitela fida,
 Nahi dutena egiten usatuiak dira.
 Ontsa erakusteko jin zaizu tenora,
 Pasatzera ez utzi, orai da denbora.

XII

Lur hau baino hoberik nehun ez da ageri,
 Hunek eman dezake jatera orori;
 Fruituia emaiten du, landatuz nun nahi;
 Zaintzen ahal baduzu, zu zira nagusi;
 Ontu gabe jatera ez utzi nehor!

XIII

Eiten ahal baduzu hoi, zer balentria,
 Bertzerenaren uzten zuk erakustia!
 Ez duzu aise eginen zenbaiten zaintzia;
 Axeriaren pare dute malezia;
 Nekez ahanzten zaie behin ikasia.

Lleve con Vd. a sus amigos
¡hombres que amarían a su patria!
¡En adelante, saque bien los planes,
para trabajar mejor que los demás,
para que sean suyas, las obras y las famas!

Se ha puesto bajo una gran carga,
aunque sea alto el cargo que tiene;
sin ayuda no se puede levantar lo que cayó al suelo.
Haga lo posible en favor del pueblo
estamos esperando sus hermosas obras.

Tenemos en Vd. nuestra esperanza
no nos levantaremos sin ayuda,
sé perfectamente que estamos necesitados,
a punto de tomar confianza en Vd.
no le faltarán ayudas.

No podrá fácilmente dar gusto a todos
no confíe en los celosos,
porque están acostumbrados a hacer lo que quieren.
Ha venido la hora de bien enseñar
no la deje pasar, ahora es el tiempo.

Mejor que esta tierra no hay ninguna
daría de comer a todos
en todas partes da fruto si se cultiva
Vd. es el patrón si puede vigilarla
no deje comer a nadie
antes de la maduración.

Si puede hacer eso ¡qué hazaña!
dejando a otros el demostrar
no podrá fácilmente vigilar;
porque esos tienen la astucia del zorro;
difícilmente olvidan lo que han aprendido.

XIV

Ez zaitela fidatu, egin zazu kasu!
 Makur xerkatzailiak izanen dituzu,
 Heiek zure menian beti atxik zaitzu!
 Tzarrak onen aldetik urrun ezar-zkitzu!
 Sagar usteldu batek, on hainitz galtzen du.

XV

Hainitz ariko zaitzu, gostura xerkatzen,
 Sekulan ez baitute gauza onik pentsatzen:
 Xistera bat eskuan zaituzte pintatzen,
 Zenbait puntan har-eta has zaite botatzen,
 Zuretzat on ez dena kanporat igortzen.

XVI

Nahi gabe ezartzen zaituzte ohoretan,
 Euskal Herrietako moda ederretan,
 Erakus diezozute, obra guzietan,
 Ez zirela bakarrik «vasco» arropetan,
 Euskaldunen odola duzula zainetan!

XVII

Euskaldunen sinestia, hau da zuretako,
 Makurrak dituzula ontsa arranjatuko;
 Uste dugu ez girela hortan tronpatuko,
 Denbora jinen denian obren ikusteko,
 Oihu eginen dugu: «Emak-hor, Juazintol!».

XVIII

Gizonek egin obrak ez ditazke gorda,
 Guziek bistan dugu Artigas-en obra,
 Konfidantzan emana, zure eskuian hor da:
 Hori, behar bezala ditaken kontserba,
 Entsegu bat egizu, *Idiarte Borda!*

IX

Barneko eta kanpokoek elgar hartu-eta,
 Nehor ibili gabe kontrario keta,
 Luma eta ezpata elgarrekin junta,
 Ideia on batian gauzak ontsa planta,
 Holako gobernuak egiten du falta.

¡No confíe, haga caso!
tendrá buscadores de defectos,
¡manténgales bajo su dependencia!
¡separe los buenos de los malos!
Porque una manzana podrida, pierde muchas buenas.

Muchos están buscando defectos
porque no tienen buenas intenciones;
os pintan con la cesta de pelota en la mano,
tome algunos en la punta y láncelos
eche a lo lejos al que no sea bueno para Vd.

Sin quererlo les ponen en el honor,
con la hermosa moda del País Vasco.
Muéstreles en todas sus obras
que no es únicamente vasco de ropa,
que tiene sangre vasca en las venas.

La creencia de los vascos es
que va a componer lo perjudicado;
pienso que en esto no nos equivocaremos
cuando venga el tiempo de ver las obras
griataremos «¡Dale que dale! ¡Juancito!».

Las obras humanas no se pueden esconder,
todos tenemos a la vista las obras de Artigas.
La confianza dada la tiene en la mano:
para conservarla como debe,
¡esfuércese señor Idiarte Borda!

Con el acuerdo de los de fuera y de dentro
sin que nadie ande buscando enemistad,
juntando pluma y espada,
planteen bien las cosas con una idea clara,
ese es el gobierno que se necesita.

XX

Kopia hau har zazu Euskaldunetarik,
Mendiague-ek emanik, *San Jose* herritik:
 Estimutzen zaitugu, guk gure aldetik,
 Ez dugu esperantza zu baino hoberik,
 Kontent gira izanen zutaz gidaturik.

Letxeroak eta ostalerak

I

Amerika hotako esne-saltzaliak,
 Libertizionerako parerik garbiak,
 Giristinotasuna dira ikasiak:
 Bataiatzen dituzte guziek esniak;
 Ez dira enpatxatuko haur sortu-berriak.

II

Erreparto egiterat goizetan badoazi
 Beren “kardinetarik” einez zenbait jauzi;
 Batian hartu eta bertziari utzi,
 “Tarroan” ura frango eta esne guti;
 Erakiturik ere, ez da joaiten goiti!

III

Omore ona dute goizetik, ardura,
 Nork daki zenbat aldiz, trenpatuz zintzurra.
 Bortaz borta, oihuka: “*Vendo leche pura*”,
 Hiruetarikan bat, segurikan ura;
 Ez du balio ezartzia berotzera, sura.

IV

“Manteca” kendu-eta esnia flakatu,
 Ur zorta batekilan berriz emendatu;
 Bortz “tarro” eros, eta zazpi-zortzi saldu;
 Holako tratulantak ez dezake galdu:
 Oi , zer negozioa! Beti irauten balu!

V

Errepartoa ein-eta, zuzen ostatura,
 Joko beretik bizi diraden lekura,
 Erranez: “Saldu diuk, esniarekin ura,
 Aise kenduko die gaineko gordura,
 Biziko hobe diaguk “tambo”-ko gazura”.

Tome esta versión por parte de los vascos
mandada por Mendiaga desde San José:
le estimamos mucho por nuestro lado,
no tenemos mejor esperanza que su persona,
estaremos contentos de estar por Vd. dirigidos.

Lecheros y taberneros

Los repartidores de leche de esta América
sin par para divertirse,
aprendieron el cristianismo:
todos bautizan las leches;
los recién nacidos no se van a sofocar.

Salen por la mañana a repartir
dando bastantes saltos desde sus carros;
tomando al uno para dar al otro,
en el tarro mucha agua y poca leche;
¡a pesar de hervir no desborda!

Temprano tienen, a menudo, buen humor
quién sabe cuantas veces, se mojan la garganta
de puerta a puerta, gritan «¡*Vendo leche pura!*»
de tres partes una, es seguro de agua;
no merece la pena de ponerla a calentar en el fogón.

Tras quitar la manteca a la leche debilitada
se le añade de nuevo una gota de agua;
comprando cinco tarros, venden siete u ocho;
tal traficante no puede perder;
¡oh! que negocio si durase siempre!

Hecho el reparto, derecho a la tasca,
donde se vive del mismo juego,
diciendo «hemos vendido agua con leche»,
facilmente quitarán la crema,
es mucho mejor «el suero del tambo».

VI

Ostalerak eiten du bere baitan irri:
 “Urak emanak, urak kenduko daizk hiri”;
 Keinu egiten dio bere mutilari:
 “Hik ere egin ezok lan bera arnoari!
 Moneda beretikan paga dezan sarri”.

VII

Letxeroak bezala dira ostalerak,
 Su-hiltzale hoiekin juntatu beharrak;
 Badakite nola ken arnoari indarrak:
 Ez izana gantikan edale azkarrak,
 Mozkortzekotz behar du barril bat, bakarrak.

VIII

Etxian badaukate kapital segura,
 Hortakotz bizi dira guziak gostura,
 Alde guzietark “canilla”-tik ura,
 Martxantak, zangoz goiti jartzen ez badira,
 Ez zaie aise joanen arnoa burura.

IX

Non nahi galda dadin “caña” edo likurra,
 Beldurrik gabe edan ditake gostura;
 Ez du zeren galdatu deusetako ura,
 Arranjatua dago behar den trenpura,
 Ez erretzeko gisan nehorri zintzurra.

X

Apetitu biltzera “mostrador” ondora,
 Ez dugu alfer pasatzen zonbaitek denbora:
 Batek “Bitter”-a, eta bertze batek “Byrrh”-a,
 Edanikan ere golpez hamabira,
 Sartzian bezain fresko ateratzen gira.

XI

Bi negozio dira, biak parekuak,
 Batzu ostaler, eta bertziak letxeruak,

El tabernero por dentro se ríe
«Lo que te dio el agua
te lo quitará el agua»
hace guiños a su camarero:
«Haz el mismo trabajo al vino»
para que luego paguen de la misma moneda.

Tal los lecheros son los tasqueros
que se pueden juntar con los bomberos.
Sin ser buenos bebedores
saben quitarle al vino su fuerza,
para emborracharse hace falta
un barril por persona.

En casa tendrán seguramente un capital
por eso viven a sus anchas,
en todas partes fluye el agua de la canilla.
Si quieren que el vino le suba a la cara
tienen los compradores que
ponerse cabeza abajo.

Que se pida caña o licor,
sin miedo se puede beber con gusto;
no tiene que pedir agua en nada,
ya está bien arreglado al nivel que conviene
de manera de no quemar
la garganta a nadie.

Para tomar apetito cerca del mostrador,
no pasamos mucho tiempo en holgar:
uno pide «Bitter» y el otro «Byrrh»
a pesar de beber una docena en un trago,
saldremos de aquí tan frescos
como al entrar.

Son dos negocios, los dos iguales,
los unos taberneros, los otros lecheros,

Mainuen emaiteko, oi zer medikuak!
 Ez ditugu galduko burutik zentzuak,
 Atxikitzen gaituzte ur hotzez hantuak!

XII

Horietarik zenbait direnian hiltzen,
 Deubruiak lepotikan ditu harrapatzen,
 Haren aztaparretik Jainkoak ateratzen,
 Ez du nahi ifernurat sekulan sar diten,
 Beldurrez hango suia, urez hil dezoten.

XIII

Estimagarri dira holako jendiak,
 Zintzurra patar, eta zabalak hertziak,
 Ez diote kalte eiten sekula edariak,
 Den lekuian ez ditu itoko egarriak,
 Lanjer gehiago du hoiien zamariak.

Euskal Erria, 1912-XI-10

Montevideo-ko arrain-saltzale baten zaldiaren bizia

Airea: "Nabi balin bagira hil-eta salbatu..."

I

Esplikatzera noa zaldi baten planta,
 Ez zaitez tela otoi, nehor espanta,
 Alde guzietarik dolugarri baita,
 Aspaldian galduak ditu ama eta aita,
 Barnetikan hits da,
 Laburtua bista,
 Ezin ontsa trata,
 Beti zerbait falta,
 Erremedio onik horrentzat ez da.

II

Sortuz geroz bizi da munduan penetan,
 Udan berroz, neguan hotz-ikaretan,
 Batian ferietan, bertzian karriketan,
 Zangotik maingu eta besoez herrestan,
 Joka kostilletan,
 Kurri dadin trostan,
 Tatxarik ferretan

para recetar baño, ¡oh! que médicos!
¡no perderemos la sensatez,
nos mantienen hinchados
de agua fresca!

Cuando algunos de ellos mueren
el demonio los agarra por el cuello,
y Dios les saca de sus garras:
no quiere que entren al Infierno
temiendo que con el agua,
apaguen el fuego.

Son estimables tales personas,
de garganta declive y anchas tripas,
la bebida no les daña,
en el lugar donde está
la sed no les sofocará
más peligro tendrá su caballo.

(Montevideo, *Euskal Erria*, 10 de noviembre de 1912).

La vida del caballo de un pescadero de Montevideo

Voy a explicarles el aspecto de un caballo
¡por favor! Que nadie se espante
porque de todas partes es lamentable.
Sus padres hace mucho los perdió.

Por dentro está muy triste
la vista acortada.
Es imposible curarle
siempre le falta algo.

No hay para él ningún medicamento.
Vive con penas desde su nacimiento
tiene calor en verano, tiembla de frío en invierno.
Un día en la calle, otro en el mercado,
tanto cojeando, piernas como brazos arrastrando
se le pega en los huesos de las costillas
para que trote

Sekula ez du izan,
Ez du nagusi txarra Ameriketan.

III

Burua apal dauka, begiak ilunak,
Ez du alegeratzen bere fortunak;
Lotsaturikan dauka egun oroz lanak,
Indar ein behar-eta, ahulduak zainak,
 Hortzak eta haginak,
 Lan guti eginak,
 Zorrotzak letainak,
 Zilintzan ezpainak,
Ez du fatura txarra etxean daukanak.

IV

Goizetan badabila, kargatua arrainez,
Pasatzian guzier agur emanez,
Ez du fantesiarik sekulan indarrez,
Noiz nahi eroria lurrerat belaunez,
 Gogor da errainez,
 Bizi, guti janez,
 Sabeletik minez,
 Non nahi eginez,
Nehor ez daite hurbil horri usainez.

V

Indarrrik ez du, bainan badu malezia,
Freskorik pasatzeko bere bizia;
Bizkarreko larrutik hartzen du airia;
Uliak ezin kenduz bataila gorria,
 Heiekin du auzia,
 Aspaldi hasia,
 Neke irabaztia;
 Hau du desgrazia:
Gaizoak buztana errotik dauka hautsia.

VI

Gizenaren partetik bizi da bakian;
Bortz ontza haragi ez du gorputz guzian;
Gastu guti egiten du "alfafa" berdian;
Ez du hortzik hautsiko artoa jatian;
 Segur du arratsian
 Lastoa establian,

clavos en las herraduras
nunca tuvo
mal dueño no tiene en las Américas.

La cabeza humilde, los ojos oscuros
su fortuna no le alegra;
cada día le infunde miedo el trabajo
tiene que esforzarse con debilitadas fuerzas.
Dientes y muelas
que poco trabajaron,
colmillos agudos
y labios pendientes.
No tiene mala factura el que lo tiene en casa.

Por las mañanas anda, de pescado cargado,
pasando, saluda a todos con la cabeza;
no hace gala de su fuerza,
a cada momento cayendo de rodillas.
Duro de lomos,
con poco comer, viviendo
con dolores de barriga
en cualquier parte defecando
nadie se le puede acercar por el olor.

No tiene fuerza, pero sí malicia,
para sentirse fresco el tiempo de su vida;
toma el aire por la piel del lomo;
en un gran combate, le es imposible quitar las moscas
con ellas tiene pleito
de antaño empezado,
penosamente ganará:
¡ay! que desgracia
el pobre, el rabo en la base tiene cortado.

Por parte de la grasa vive en paz;
cinco onzas de carne en todo el cuerpo tiene;
poco dinero gasta en alfalfa verde;
no romperá muelas comiendo maíz;
seguro que tendrá de noche
paja en el galpón de las vacas

Belarra pentzian,
Ura iturrian,
Holako nagusia daukano etxian.

VII

Zaldi hori jabiak dabilan moduan,
Ez du hezur osorik bere buruan,
Makila batez joka, lan egin onduan,
Kriminel bat bezala ez dago trenpuan,
Etxe inguruan,
Deus ez den lekuan,
Korda bat lepuan,
“Grilloak” zanguan,
Penitentzia frango eginez munduan.

VIII

Pena frango badauka, mantentziona guti;
Ez zaio hainitz gostatzen nagusiari;
Gosiak dauka eta nonbaitik jan nahi,
Ez da delikatua, on zaio zernahi,
Lotzen da orori,
Ahal badu beti,
“Berduleroeri”
Janez zombait arbi,
Gibelaldia ez dauka sekulan garbi.

(...)

Euskal Erria, 1912-XII-01

* Jose Mendiague (1845-1937), *Haren bizia eta haren kantuak*. P. Xarritonek prestatua. Etor,
xxx

Iturburua:

Jose Mendiague (1845-1937), Haren bizia eta haren kantuak. P. Xarritonek prestatua,
Etor, Donostia, 1992.

hierba en el prado
agua en la fuente.
Mientras que tenga tal dueño en su casa.

En el modo que su maestro lo utiliza
hueso entero en la cabeza no tendrá
zurrándole con su bastón, después de su tarea,
no tiene mejor trato que un criminal.
Cerca de la casa
en un lugar desierto
una soga en el cuello
unos grillos en las piernas
en el mundo muchas penitencias va cumpliendo.

Muchas mitas y poco mantenimiento;
no le gusta mucho a su dueño;
tiene hambre y de algún modo quiere comer,
no es muy delicado, con cualquier cosa se satisface
se agarra a todo
si puede siempre
a los verduleros
comiéndoles nabos
por eso el trasero nunca lleva limpio.

(...)

(Euskal Erria, 1 de diciembre de 1912)